Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da. Prozedura hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina eta izapidetze arrunta onetsi zituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 138.2 eta 157tik 161era bitarteko artikuluetan aurreikusita eta araututa dago. Prezioaz gain, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza zehazteko beste irizpide batzuk ere aintzat hartuko dira, plegu honen 14. klausulan adierazi bezalaxe.

### **4.- FINANTZAKETA**

Kontratuaren prezioa aurtengo aurrekontuaren kontura finantzatzea aurreikusi da, 4210-227.99 partidan.

### **5.- KONTRATUAREN PREZIOA**

Lizitazio-mota hogeita hamazazpi mila eta seiehun eta hogeita hamalau euroko gehienezko kopuruan (37.634 €) ezartzen da, BEZa kanpo. BEZaren zenbatekoa hiru mila eta zazpiehun eta hirurogeita hiru euro eta berrogei zentimo (3.763,40 €) da, hau da, % 10eko tipoaren baliokidea. Hartara, kopurua, guztira, berrogeita bat mila eta hirurehun eta laurogeita hamazazpi euro eta berrogei zentimo (41.397,40 €) izango da, eta kopuru horrek barne hartuko du langileei dagokien zati finkoa gehi zerbitzatutako menuei (bazkariak eta askariak) dagokiena.

- Laguntzaileei dagokien gehienezko prezioa hamazortzi mila eta hirurehun eta hirurogeita hamalau euro eta berrogei zentimo (18.374,40 €) izango da, BEZa kanpo.

- Bazkarietara eta askarietara dagokien gehienezko prezioa hemeretzi mila eta berrehun eta hirurogei euro (19.260 €) izango da, BEZa kanpo.

Zerbitzatutako bazkari eta askari unitate bakoitzak, gehienez ere, prezio hau izan beharko du:

- Bazkaria: 2,50 euro + BEZa
- Askaria: 0,55 euro + BEZa

## **6.- EXEKUZIO EPEA**

Zerbitzua emango da, kontratua formalizatzen den datatik hasi eta 2016ko uztailaren 31ra arte.

## **7.- ORDAINTZEKO MODUA**

Emandako zerbitzua hileka ordainduko da, aurretiaz faktura xehatua aurkeztuta. Fakturan hiru kontzeptuak (bazkaria, askaria eta laguntzailearen lana) xehatuta agertu beharko dira, eta adierazi beharko da hil bakoitzean zenbat erabiltzaile egon diren, guztira.

Hamaika faktura aurkeztuko dira (abuztuan hartzaindegia itxita dagoelako eta, beraz, ez delako zerbitzurik emango).

## **8.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA**

Ez da behin-behineko bermerik eskatuko.

## **9.- BEHIN BETIKO BERMEA**

Kontratazio organoak errekerimendua egingo dio ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatuari, hamar egun balioduneko epean behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiriak aurkezteko. Epe hori zenbatzen hasiko da lizitatuak errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik aurrera.

Errekerimendua ez bada ezarritako epean betetzen, lizitatuak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertu eta hurrengo lizitatuarengana joko da, dokumentazio berdina eskatzeko. Eskaintzak nola sailkatuta geratu diren, hurrenkera horri jarraituko zaio hurrengo lizitatuak nor den jakiteko.

Bermea eratu ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96. artikulua ezarritako edozein bide erabilita, betiere Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Araudi Orokorren (APKLAO) 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak beteta.

Behin betiko bermeak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 100. artikulua jasotako kontzeptuei erantzun die.

Bermeak itzuli eta kitatu egingo dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 102. artikuluan eta Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 65.2 eta 65.3 artikuluek xedatutakoari jarraituta.

## **10.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**



Kontratazio prozedura honetan ondoko hauek baino ezin izango dute parte hartu: gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, hain zuzen ere, euren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen dutenak eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikulua kontratatzeke adierazitako debekurik ez daukatena. Kaudimena egiaztatu eta ebaluatuko da Plegu honen 13. klausulako d) atalean ezarritako baliabideen arabera.

Era berean, kaudimena norberak edota baimendutako ordezkariak egiaztatu ahal izango du; bigarren honen kasuan, ordezkariari horretarako behar besteko ahalordea eskuordetu beharko zaio. Pertsona juridikoen kasuan, bertako kide bat datorrenean haren izenean, ordezkari gisa jarduteko ahalordea baduela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du. Bai kasu batean, bai bestean, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak aplikatuko zaizkio ordezkariari ere.

Era berean, enpresariak dagokion enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hain zuzen ere, kontratu honen xede den jarduerari edo objektuari dagokiona.

## **11.- SAILKAPENA**

Ez dagokio.

## **12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Proposamenak Mungiako Udaleko Erregistro Orokorrean (Harrera Bulegoan) aurkeztuko dira, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Lizitazio honen xedea, bestalde, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Proposamenak postaz bidaltzen badira, enpresariak bidaltze-data egiaztatu beharko du posta bulegoan, eta kontratazio organoari fax edo telegrama bidez jakinarazi beharko dio eskaintza bidali diola, bidaltzen duen egun bereko 13:00ak baino lehenago. Kontratazio organoak ez ditu epea amaitu osteko data eta ordutik aurrera jasotako proposamenak onartuko, baldin eta baldintza horiek biak betetzen ez badituzte. Hala eta guztiz ere, adierazitako datatik 10 egun natural igaro badira proposamenik jaso gabe, hura ez da onartua izango.

## **13.- PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA**

Kontratazio honi dagokion espedientea eta hari erantsitako dokumentazio teknikoa Mungiako Udaleko Gizarte Ekintza Arloan egongo da ikusgai egunero, proposamenak aurkezteko epean zehar, 09:00etatik 13:00etara.

Proposamenak aipatutako toki eta ordutegian aurkeztuko dira, itxitako HIRU gutun-azaletan. Bertan zera idatzi beharko da: "URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAN CATERING ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA". Eta honako agiri hauek aurkeztuko dira:

### **"A" GUTUNAZALA - ADMINISTRAZIO AGIRIAK**

a) Parte-hartzailearen edota haren ordezkariaren Nortasun Agiriaren fotokopia. Horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean ari direnentzat, notarioaren ahalordea.

b) Eskaintza egiten duena pertsona juridikoa bada, haren eratzeko edo, hala balitz, aldatzeko eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutakoa; eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, aplikagarri den merkataritza-legeriaren arabera, izen-ematea galdagarria den kasuetarako.

Izen-ematea galdagarria ez den kasuetarako, berriz, jarduteko gaitasuna egiaztatuko da pertsona juridikoa eratzeko eskritura edo agiri bidez, estatutuen bidez edota eratzte-egintzaren bidez. Agiri horiek pertsona juridikoaren jarduera arautuko dute eta, hala balitz, dagokion erregistro ofizialean izena emanda egongo dira. Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu-kideetako enpresari kasuan, euren enpresa dagoen herrialdeko legeriak ezarritako erregistroan izena emanda daudela egiaztatu beharko dute, edota, bestela, zinpeko aitortpena edo egiaztatzea aurkeztu beharko dute, aplikagarri diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

c) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan jasotako kontratatze debekurik ez dagoela jasotzen duen berariazko erantzukizun-adierazpena. Bertan berariaz adierazi beharko da indarreko xedapenek ezarritako zerga-obligazioekin eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioekin egunean dagoela, azken bi baldintza hauek egiaztatzen dituzten agiriak aurkezten direnean salbu.

d) Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko eta profesionala. SPKLTBren 75. eta 78. artikuluetan ezarritako bideren bat jarraituta egiaztatu beharko dira.

Eskatutako agirien jatorrizkoa ala kopia aurkeztu ahal izango da; azken honen kasuan, kopia horrek behar bezala konpultsatuta edo Administrazioak zein notarioak legeztatua egon beharko du.

Lizitatuak, lehenago adierazitako agiri horiek guztien ordez, erantzukizun-aitortpena aurkeztu ahal izango du (Plegu honen I. ERANSKINEAN dago eredu). Aitorpen horretan jaso beharko du Legeak Administrazioarekin kontratatze ezarritako baldintzak betetzen dituela, zehazkiago Plegu honetan jasotakoak, eta hala egiaztatze agiriak badituela. Kasu horretan, esleipendun suertatzen den lizitatuak eskatutako agiriak badituela eta agiri horiek baliodunak direla egiaztatu beharko du kontratazio organoaren aurrean, kontratua esleitu aurretik.

Edozein kasutan, kontratazio organoak, prozeduraren egokitasuna bermatze aldera, esleipenerako proposamena egin aurretik, eskatu ahalko du lizitatuak aurkeztu ditzatela kontratuaren esleipendun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatze agiriak.

Oharra: proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da legeetan eta Plegu honetan kontratatze ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze une erabakigarria.

## **"B" GUTUNAZALA - FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.**

Proposatutako hobekuntzak balioetsi egingo dira, baremo honen arabera (gehienez ere, 30 puntu):

- Hornitu beharreko menuen kalitatea, aniztasuna eta egokitasuna: gehienez ere, 18 puntu.
  - o Okela eta arrain motak.
  - o Elikagaien jatorria, horiek prestatu aurretik.
  - o Elikagaiak astero-astero banatzea.
- Ezustekoen aurrean edo ikasle berriak datozenean nola jokatzeko den: gehienez ere, 12 puntu.

## **"C" GUTUNAZALA.- FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**

Kontratuaren prezioa: gehienez ere, 70 puntu.

Aurkeztutako proposamena Plegu honen II. Eranskinean finkatutako ereduaren arabera izango da.

Aurkeztutako proposamena Plegu honen II. Eranskinean finkatutako ereduaren arabera izango da (gehienez ere, 70 puntu).



Proposamenen bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez baletor; eskaintza ekonomikoa kontratuaren prezioa baino handiagoa izango balitz; proposamen hori ezarritako ereduarengandik oso bestelakoa izango balitz; zenbatekoan akats nabaria izango balu; edota lizitatzailak onartuko balu proposamena akastuna edo funtsik gabea dela eta, ondorioz, bideraezina dela. Kasu horietan guztietan kontratazio mahaia proposamen hori baztertu egingo du behar bezala arrazoitutako ebazpen bidez. Ereduko hitz batzuk aldatuta edo kendu arren zentzua aldatu ez bada, horrek ez du proposamena baztertea ekarriko.

#### **14.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK**

Hona hemen kontratua esleitzeko kontuan hartu beharreko irizpideak:

##### **1.- Formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideak**

Eskainitako prezioa: 0-70 puntu, irizpide hauei jarraituta:

Eskaintza ekonomiko bakoitza honela puntuatuko da:

Prezio txikiena duen eskaintzari 70 puntu emango zaizkio.

Gainontzeko eskaintzei honako formula hau aplikatuko zaie:

Prezio txikiena jasotzen duen eskaintzaren zenbatekoa X 70 puntu	= ..... puntu
Eskaintza ekonomiko bakoitzaren zenbatekoa	

##### **2.- Formulen bidez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideak:**

Lizitatzailak eskainitako hobekuntzak balioetsi egingo dira, honako baremo honen arabera (gehienez ere, 30 puntu):

- Hornitu beharreko menuen kalitatea, aniztasuna eta egokitasuna: gehienez ere, 18 puntu.
  - o Okela eta arrain motak.
  - o Elikagaien jatorria, horiek prestatu aurretik.
  - o Elikagaiak astero-astero banatzea.
- Ezustekoen aurrean edo ikasle berriak datozenean nola jokatzeko den: gehienez ere, 12 puntu.

#### **15.- KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio mahaia Fundazioko zuzendaritza batzordeko ondoko kideek osatuta egongo da:

Fundazioko lehendakaria (alkatea); Finantza eta Ekonomia Arloko zinegotzi ordezkaria; eta Mungia Udaleko idazkaria eta kontu-hartzailea.

#### **16.- DOKUMENTAZIO OROKORRA KALIFIKATZEA.**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 160. artikulua eta APKLAren 22. eta 81. artikuluek xedatutakoarekin bat etorrira, proposamenak aurkezteko epea amaituta, kontratazio mahaia, batzar pribatuan, ezarritako epearen barruan aurkeztu eta forma aldetik zuzenak diren agiriak kalifikatuko ditu, hain zuzen ere "A" GUTUNAZALEAN (ADMINISTRAZIO AGIRIAK) daudenak.

Kalifikazio hori egin ahal izateko, gutun-azalak ireki eta idazkariak egiaztatu egingo du gutun-azal horietako bakoitzean dauden agirien zerrenda. Mahaiak akats materialik antzemango balu aurkeztutako dokumentazioan, interesdunei horren berri emango die ahoz, eta lizitzaile horiei akatsa konpontzeko epea emango die (gehienez ere, hiru egun baliodun).

Hori bai: lizitzailearen baten dokumentazioak funtsezko akatsak edota konpondu ezin daitezkeen huts materialak izango balitu, dokumentazio hori ez da lizitaziorako onartuko.

Aurreko paragrafoan aipatutako akatsen konponketa alde batera utzita, kontratazio mahaiak, lizitzaileen kaudimenaren egiaztatzea osatze aldera, egoki deritzen argibideak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako egiaztagiria eta dokumentuei buruz. Era berean, bestelako dokumentu osagarriak aurkezteko eskatu ahal izango die, eta lizitzaileek errekerimendu horri bost egun naturaleko gehienezko epean erantzun beharko diote, betiere proposamenak onartuak izan direla aitortu baino lehen.

## **17.- PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Aurkeztutako agiriak izan zitzaketen akatsak edota omisioak konponduta, kontratazio mahaiak agiriok baloratu eta berariaz adieraziko du lizitaziorako zeintzuk onartu dituen, zeintzuk baztertu dituen eta, azken hauen kasuan, zergatik baztertu dituen.

Gero, onartuak izan diren lizitzaileen "B" GUTUNAZALAK (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK) ireki eta bertako edukia aztertuko dute.

Jarraian, kontratazio mahaiak B GUTUNAZALAK prozedura sustatu duen arlora bidaltzea erabakiko du, proposamenak proposatutako hobekuntzen arabera aztertu ditzaten.

Azkenik, mahaia eratu eta lizitzaileek aurkeztutako agirien kalifikazioaren emaitza jakinaraziko da. Adieraziko da zeintzuk diren onartutako proposamenak, zeintzuk baztertutakoak eta, azken hauen kasuan, zergatik ez diren onartuak izan. Horren ostean "C" GUTUNAZALA (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK) irekiko da, eta bertan dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

## **18.- ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Kontratazio organoak errekerimendua egingo dio ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitzaileari, hamar egun balioduneko epean honako hauek aurkeztu ditzan:

- Zerga-obligazioekin eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioekin egunean dagoela jasotzen duen egiaztagiria.
- Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.
- Plegu honen 20. klausulan aurreikusitako aseguru-baldintzak betetzen direla jasotzen duen aseguru-entitatearen egiaztagiria.

Errekerimendua ez bada ezarritako epean betetzen, lizitzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertu eta hurrengo lizitzailearengana joko da, dokumentazio berdina eskatzeko. Eskaintzak nola sailkatuta geratu diren, hurrenkera horri jarraituko zaio.

Kontratazio organoak kontratua esleituko dio proposamen onuragarriena aurkeztu duen lizitzaileari (onuragarritasun hori 151.4 artikuluan ezartzen den moduan balioetsiko da).

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 155.2 artikulua aurreikusitakoari jarraituta, kontratazioa bertan behera utzi edota prozeduran atzera egingo balitz, URIGUEN HAURTZAINDEGIA



FUNDAZIOAK ezarriko du lizitazioak eragindako gastuengatik lizitatzaleei zenbat ordaindu behar zaien, aurretiaz lizitatzale horiei entzunda eta, betiere, 1.000 euroko mugarekin.

Kontratazio organoak hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko du kontratua; epe hori zenbatzen hasiko da lizitatzaleei eta izangaiei esleipena jakinarazten zaien egunaren biharamunetik aurrera.

Esleipendunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik kontratua ez balitz adierazitako epean formalizatuko, URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAK ebatzi ahal izango du behin betiko bermetik behin-behineko bermeari dagokion zenbatekoa atzematea, horrelakorik ezarri bazuen.

## **19.- ASEGURUA**

Esleipendunaren kontura izango dira bere lana egiten dagoela gertatutako kalte guztiak, horien izaera eta tamaina edozein dela ere.

Bere kontura diren arrisku horiei aurre egiteko, esleipendunak aseguru-poliza bat kontratatu eta hura indarrean mantenduko du esleipenak dirauen bitartean. Aseguru-poliza horrek hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalteengatik erantzukizun zibilari (orokorra, patronala, gurutzatua eta akurapenezkoa) aurre egingo dio, enpresako langile finkoek edo aldi baterako langileek, bertako makineriak edota lan-tresnek sorrarazitakoak zerbitzua ematen ari ziren bitartean; poliza horrek, bestalde, ehun mila euroko (100.000 €) zenbatekoa izango du, gehienez ere.

Aipatutako aseguru-kontratuari dagokion prima esleipendunaren kontura izango da, eta horren zenbatekoa kontratuaren prezioetan jasanarazita dagoela joko da.

Era berean, eta aseguru-kontratu hori indarrean dagoela ezbeharren bat gertatuko balitz, esleipendunaren kontura izango da hark aseguru-konpainiarekin adostuta izan lezakeen edozein frankizia ordaintzea.

### URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOA ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEIA.

Aipatutako aseguru-kontratuan erantzukizun ezaren eta subrogazio ezaren klausula bat jasoko da, URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOARI DAGOKIONEZ.

Esleipendunak aseguru polizaren kopia bidaliko dio URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAREN ordezkariari, berau formalizatu aurretik onetsi dezan.

Esleipendunak poliza indarrean mantendu beharko du kontratuak dirauen bitartean.

Esleipendunak aseguru polizaren eta indarreko polizaren ordainagiriaren kopia bidaliko dizkio URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAREN ordezkariari, hura indarrean sartu eta hogeita hamar eguneko epean. Berandu baino lehen bidaliko dizkio ere gerta daitezkeen ezbehar edo istripuen aitorpenen kopia bi.

URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAK esleipendunari eskatu ahal izango dio, edozein unetan, aseguru kontratatu izana, berau ordaindu izana, kontratuaren edukia eta kontratuaren indarraldiaren egiaztatzeke; hala egitekotan, esleipendunak aseguru-polizaren eta ordainagiriaren kopia entregatu beharko ditu.

Kontratututako aseguruak ez ditu mugatuko kontratu honek esleipendunari eragindako betebeharrak eta erantzukizunak. Ondorioz, esleipenduna izango da, eskatutako muga eta bermeez gaindi, egozten zaizkion galera edo erantzukizunen erantzule, aseguruaren frankiziaren zenbatekoan.

## **20.- UKO EGITEA ETA ATZERA EGITEA.**

Kontratazio organoak kontratua formalizatzeari uko egin ahal izango dio, esleipena egin aurreko edozein unetan eta, betiere, espediente bidez arrazoitu beharreko interes publikoko arrazoiak medio. Halaber, eta epe berean, prozeduran atzera egin ahal izango du, baldin eta kontratua prestatzeko arauak edota kontratua zein esleipen prozedura prestatzeko prozedura erregulatzen duten arauak ezin zuzenduzko moduan urratu badira

## **21.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA**

Kontratuaren exekuzioa URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAREN zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean egingo da. Fundazio horrek bere ahalmenak egikaritzeko ditu, idatziz zein ahoz.

Esleipendunari edota bere menpe dauden pertsoneri egotzi ahal zaizkien egintzak ala ez-egiteak direla eta, kontratua behar bezala aurrera eramatea eragozten bada, URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAK egoki deritzen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du, exekuzioa bere onera ekartzeko aldera.

## **22.- ESLEIPENDUNAREN LAN-BETEBEHARRAK**

Enpresa esleipendunak beharrezko langile guztiak jarriko ditu kontratuaren xedea betetzeko ezarritako baldintzen arabera.

Zerbitzugintzan diharduten langile guztiak soilik esleipenaren menpe baizik ez dira egongo ondorio guztietarako, eta langileen, esleipendunaren eta Fundazioaren artean ez dago mendetasun funtzionalik ez laneko menpekotasunik. Ondorio horietarako, kontratua burutzen hasi baino lehen, nahitaez zehaztu beharko ditu esleipendunak zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatzak, eta euren afiliazioa eta alta egiaztatu beharko ditu Gizarte Segurantzaren. Kontratuak indarrean jarraitu bitartean, Fundazioari jakinaraziko zaio langileen edozein ordezpene edo aldarazpen, eta haien lan egoera zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatuko du.

Fundazioak ez du ezelako erlazio juridikorik edo laneko erlazioerik esleipendunak zerbitzua emateko kontratatuta dituen edo kontratatuko dituen langileekin kontratuaren indarraldi osoan, ez kontratua edozein arrazoi tarteko desegindakoan. Hartara, kontratistaren pentzura izango dira kontratuaren ondoriozko laneko betebeharrak, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak kontratazio honen xedeko zerbitzuak ematen dituzten langileei dagokienez. Kontratistak Bizkaiko Lurralde Historikoan indarrean dauden laneko eta arriskuen prebentzioari buruzko arauetako betebeharrak guztiak bete beharko ditu, nahitaez, bere pentzurako langileekiko harremanetan, kontratazioaren, ordainsarien, Gizarte Segurantzaren, alden eta bajen eta, oro har, enpresaren eta langileen arteko harremanen ondoriozko guztien aldetik.

Fundazioak berekin gordetzen du edozein unetan betebeharrak horiek betetzea egiaztatzeko agiriak eskatzeko eta egiaztapen horren arabera jarduteko eskubidea. Hartara, zigor-espeditatea hasiko du, zerbitzuko ziurtagirien zenbatekoa jaitsi, ziurtagirion ordainketa eten, erantzukizun egokiak eskatu eta, hala denean, kontratua desegingo du, edo bestelako bidezko edozein jarduketa burutuko du.

## **23. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**



Adjudikaziodunak herritarrekin dituen harremanetan –bai ahozkoetan eta bai idatzizkoetan–, herritarrak aukeratutako hizkuntza erabili beharko da, betiere, euskeraren erabilera lehenetsita.

Kontratutako den zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanda, harreman hori idatzizkoa baino izango ez denez, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraituta, dokumentazioa euskera hutsean ala euskeraz eta erderaz eskainiko da, betiere, euskerari lehentasuna emanda (tipografian, ordenean...).

Ahozko harremanik aurreikusten ez den arren, harremanen bat sortuz gero, herritarrak aukeratutako hizkuntza erabili beharko du enpresak (edo bere langileek), betiere, euskerari lehentasuna emanda, hau da, lehenengo berba euskaraz izango da, baita agurrak eta erraz ulertzeko moduko mezuak ere. Irizpide hau telefono bidezko komunikazioan ere aplikatu beharko da.

Adjudikaziodunak Administrazio honekin izango dituen harremanak euskeraz zein gazteleraz izango dira. Eta dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan aurkeztu beharko du.

#### **24.- KONTRATUA EGIKARITZEN ARI DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK ESLEIPENDUNAK DUEN ERANTZUKIZUNA**

Esleipenduna izango da kontratua exekutatzeke eragiketen ondorioz sortutako kalte eta galeren erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214. artikulua xedatu bezalaxe.

#### **25.- KONTRATUAN EGINDAKO ALDAKETAK**

URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAK kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiak tarteko direnean, ezustekoei aurre egiteko; kasu horretan esleipendunak ez du kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak ezarritakoaren kalterik gabe.

#### **26.- EPEAK BETETZEA ETA BERANDUTZEENGATIKO ZEHAPENAK**

Esleipenduna kontratua exekutatzeke epea betetzera behartuta egongo da, bai eta URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAK ezarritako epe partzialak betetzera ere. Aipatutako edozein epearen amaiera helduta esleipendunak berandutzea izan balu berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, Udalak kontratua desegitea edota zehapen ekonomikoak ezartzea erabaki ahal izango du. Zehapen horiek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 212.4 artikularen lehen paragrafoan zehaztutako zenbatekoa izango dute.

Zehapenen bermea edota zenbatekoak galtzeak ez du eragotziko URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAK dagozkion kalte-galerak jaso ahal izatea, esleipendunaren berandutzatik eratorritakoak.

Berandutzea esleipendunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik eratorriko balitz, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 213. artikularen 2. atalean xedatutakoari jarraituko zaio. Edozein kasutan, esleipenduna berandutzean sartu dela xedatzeko ez da beharrezkoa izango Udalak aurretiaz esleipendun hori interpelatzea edota hari agindeia egitea.

#### **27.- KONTRATUA DESEGITEKO ARRAZIOAK**

Zerbitzu-kontratuak desegiteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223. eta 308. artikuluetan jasota daude. Kontratazio organoak ofizioz edota esleipendunaren eskariz adostu ahal izango du kontratua desegitea, esleipendunari entzungo zaiola bermatzen duen prozedura batean eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 225. eta 309. artikuluetan eta APKLAOren 109-113 artikuluetan aurreikusitako eraginekin.

## **28.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

URIGUEN HAURTZAINDEGIA FUNDAZIOAK zenbait eskumen izango ditu: kontratua interpretatu ahal izango du; hura betetzeak eragindako zalantzak ebatzi ahal izango ditu; kontratua aldatzea erabaki ahal izango du, interes publikoko arrazoiak medio; eta kontratua desegitea erabaki ahal izango du, desegite horren eraginak zehaztuta. Hori guztia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrek finkatutako muga, baldintza eta eraginekin.

## **29.- IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEAK**

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuetara sartzea badakar, esleipendunak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari eta hura garatzeko araudiari lotuta.

## **30.- JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik eratorritako auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe daudela joko da. Hala eta guztiz ere, alderdi kontratugileek adostu dezakete euren arteko auziak arbitrajearen menpe jartzea, indarreko legeriak ezarritakoaren arabera.

Agiri hau Errektore Batzordearen ebazpen bidez onetsi da, 2014ko irailaren 18an



## MUNGIAKO UDALARI AURKEZTEKO ERANTZUKIZUN-AITORPEN EREDUA

..... JAUNAK/ANDREAK, egoitza  
.....(e)(a)n duenak, eta ..... NA duenak,  
bere izenean edo ..... enpresaren ..... gisa (adierazi ea  
administratzaile bakarra den, ahaldundua...), eta enpresa horrek egoitza .....  
(e)(a)n duela, bere IFZ zenbakia ..... dela, eta telefono zenbakia, berriz  
..... dela eta helbide elektronikoa ..... dela adierazita,

ZERA AITORTZEN DU, BERE ERANTZUKIZUN PEAN:

- a) Berak ordeztzen duen enpresak legeetan eta Plegu honetan eskatutako kontratatze baldintzak betetzen dituela, eta ez daukala Administrazioarekin kontratatze Sektorre Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan jasotako inolako debekurik.
- b) Konpromisoa hartzen duela baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak entregatzeko kontratazio organoak eskatutako edozein unetan; eta, edozelan ere, esleipen prozedura bere aldekoa bada, agiriok esleipena egin aurretik entregatuko dituela.
- c) Adierazten duela lizitazio honetan edozein motatako errekerimenduak, komunikazioak edota jakinarazpenak lege ezarritako eraginekin egiteko datuak, honako hauek direla:

Harremanetarako pertsona: .....

Helbidea: ..... PK: .....

Herria: .....

1. telefonoa: ..... 2. telefonoa: .....

Fax zenbakia: .....

Helbide elektronikoa: .....

.....n, 2014ko .....ren .....(e)(a)n.

Sin.:

Enpresaren zigilua:

## ESKAITZA EKONOMIKORAKO ETA KOORDINAZIO-ORDU OSAGARRIETARAKO EREDUA

..... JAUNAK/ANDREAK, egoitza  
 .....(e)(a)n duenak, eta ..... zenbakidun  
 NA duenak, bere izenean edo ..... enpresaren ..... gisa  
 (adierazi ea administratzaile bakarra den, ahaldundua...), .....  
 enpresaren izenean,  
 helbidea .....n duena, ..... kalem, .....  
 PKarekin, ..... telefono zenbakiarekin eta ..... faxarekin, eta ..... zenbakiko  
 919f9krekin, eta, beharrezko denean, lizitazio prozesuarekin eta kontratazio izapideekin lotutako  
 komunikazio eta jakinarazpenetarako .....@..... postontzi elektronikoa duena,

ZERA AITORTZEN DU, BERE ERANTZUKIZUN PEAN:

I.- Jaso duela ..... xedea duen kontratua esleitzeko lizitazioaren iragarkiaren berri.

II.- Era berean, ezagutzen dituela Baldintza Teknikoen Plegua, Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta kontratu honi aplikatu behar zaizkion gainerako agiriak, eta agiriok oso-osorik eta berariaz onartu eta horiei men egingo diela.

III.- Berak ordezkatzeko duen enpresak betetzen dituela indarreko araudiak enpresak zabaldu, bertan instalazioak jarri eta martxan egoteari buruz ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak.

IV.- Eskaintza hau gauzatzeari dagokionez, berau honako prezio honetan eta honela xehatuta egitea proposatzen duela (BEZa kanpo):

Prezioa guztira, BEZa kanpo.	(zenbatekoa) ..... euro (letra) _____
------------------------------	---

Eta honela xehatuta:

Bazkari-menuaren prezioa X 7.000 bazkari, BEZa kanpo	..... euro
Askari-menuaren prezioa X 3.200 askari, BEZa kanpo	..... euro
Laguntzaileen prezioa, BEZa kanpo	..... euro

.....n, 2014ko .....ren .....(e)(a)n.

Sin.:

Enpresaren zigilua: